

## 5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Kanalen bitartez lortzen duguna, gure balio-proposamena merkatu-segmentuetara iristea da.

Gure banaketa kanala propioa eta zuzena da, kanal zuzenak bitartekariak saihesten dituztenak dira gure kasuan bezala eta bestetik, gure **aplikazioa propioa da**, guk geuk sortu eta eskainiko diegulako zuzenean bezeroei.

Komunikazio-kanala **online zerbitzua** izango da, bezeroek bertan aurkituko baitituzte behar dituzten baliabideak. Gainera **VIP eskubidea** lortzen duten bezeroek, zuzenean guri bertatik galderak egiteko eskubidea izango dute.

Bezeroekin telefonoaren bitartez komunikatuko gara eta horrez gain, zalantzak izanez gero, garajera joateko aukera izango dute.

